

Cultur !zan 2024

Tradiziozko arte
adierazpenen
egitaraua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Índice

Presentación	3
Komisarioak	4
Egitaraua	5
Mapa.....	6
Bertsondare	7
Cintruénigoko paloteadoa berreskuratzea eta plazaratzea.....	8
Txistua Nafarroan: etorkizuna duen tresna.....	9
Euskal Herriko musika eta soinu tresnak.....	10
Lertxunaren Hegada.....	11
Jota, gizateriaren ondarea.....	12
Okzitaniako Kantuari buruzko tailerra.....	13
Pandero-tailerra.....	14
Sustraiak.....	15
Kokinak	16
Oroitzapen Hutsak.....	17
Escola magistrala	18
Kantuzaharrak.....	19
Hiru txito	20
Identitatearen janzten	21
Agenda	22

Aurkezpena

2023an egin zen Culturlizan programaren lehen edizioa. Programak helburu du musika, dantza eta hitzezko adierazpen herrikoiak babestea, Nafarroako Gobernu Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak bultzatzen du, eta Museoen Zerbitzuko zuzendaritzak zuzentzen.

Aurtengo programak, oraingoan ere, helburu du kultura tradizionalan diharduten Nafarroako erakunde eta elkarten proiektuak eta programazioak babestea eta erraztea. Gainera, bigarren edizio honetan, Culturlizan programaren barnean ekitaldi profesionalen egutegi bat egonen da, tradizioarekin batera kultura tradizionalaren

gaineko prestakuntza, dibulgazioa eta oroimena uztartzeko.

Culturlizan 2024 programan hitzezko adierazpenak, dantza, musika instrumentala, bokala eta korala, prestakuntza-tailerrak eta kontzertuak izanen dira, guztiak ere Nafarroako Foru Komunitateko hainbat herritan.

Culturlizan programan parte hartzeko gonbidapenak harrera ona izan du, eta horrek agerian uzten du zein garrantzitsua den tradizioa babestea, haren adierazpen eta eraldaketa guztiak aintzat hartuta, eta barne hartuta oinarritzko herri-adierazpenak nahiz bestelako proposamen batzuk, gure iragan kulturala estilizatzen, gogora ekartzen eta berpizten dutenak.



Komisarioak

MARCOS ANDRÉS VIERGE
ETA IGOR SAENZ ABARZUZA

marcos Andrés Vierge eta Igor Saenz Abarzuza Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak eta ikertzaileak dira.


Biak dira erakunde horretako Musikaren arlokoak. 2016az geroztik, lan bat egiten ari dira Nafarroako musika-ondare immaterialari lotuta, ikuspegi akademiko, ikertzaile eta artistiko batetik.

2021ean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak En-Kantu: Musika eta Lurraldea diskoa grabatu eta ekoitzi zuen, eta, orduetik, taldeak zenbait kontzertu eman ditu, non musikaren eta lurraldearen arteko lotura funtsezkoa baita.

Egitaraua



mapa



BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsondare

Bi bertso-saio berezi izanen dira; lehena, Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoko bildumari buruzkoa, eta bigarrena, Julian Gaiarre Museo Etxeko "Identitatea janzten" erakusketaren esparrukoa. Bertsondareren hirugarren edizio honetan, Ander Aranburu arituko da gai-jartzaile, eta Nafarroako bi gazte txapeldun arituko dira bertsoan: Saioa Alkaiza (txapelduna 2021ean) eta Julio Soto (txapelduna 2010an, 2011n, 2015ean, 2017an, 2019an eta 2023an).

Proposamen honen asmoa da bertsolaritzaren tradizioa (kultura-intereseko ondasun immaterial deklaratu) eguneratzea eta Nafarroako oraingo herritarrekin lotzea.

📅 ABUZTUAREN 24an

🕒 12:00etan

📍 JULIO CARO BAROJA NAFARROAKO MUSEO ETNOLOGIKOAN (LIZARRA)

🔗 <https://museoetnologico.navarra.es/eu/>

📅 ABUZTUAREN 31n

🕒 12:00etan

📍 JULIAN GAIARRE MUSEO ETXEAN (ERRONKARI)

🔗 <https://www.juliangayarre.com/eu>

CINTRUÉNIGOKO PALOTEADOA

Cintruénigoko paloteadoa berreskuratzea eta plazaratzea

Paloteadoa edo makil dantza arte-ikuskizun bat da, eta dantza tradizionalarekin batera antzerkia, poesia, asmamena eta zirtoa uztartzen ditu. Adierazpen folkloriko hau oso ezaguna zen, XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran, Cintruénigon eta Erriberako beste herri batzuetan, baina, tamalez, haietako asko galdu egin ziren, denboraren poderioz. Tradizio honi buruzko informazioa berreskuratu egin da Mikel Aramburu Urtasun eta José María Jimeno Juríoren ikerketa etnografikoei esker eta Javier Murilloren lanari esker, berak sortu baitzuen Cintruénigoko dantza-taldea. Gainera, agiri historiko batzuk daude, hala nola El Eco de Navarrako artikulua bat, 1893koa, eta Diario de Navarrako artikulua bat, 1953koa, eta haietan zenbait xehetasun daude dantzen egiturari eta pertsonaien jantziei buruz.

Paloteado de Cintruénigo taldeak tradizio hau berreskuratu du, eta aktoreek, dantzariak eta musikariek parte hartuko dute ikuskizunean.



📅 IRAILAREN 1ean

🕒 20:00etan

📍 CINTRUÉNIGON (LOS PASEOS).

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE.

LAYA KULTUR ELKARTEA

Txistua Nafarroan: etorkizuna duen tresna

Proposamen honetan, Laya Kultur Elkartek txistuaren oraina eta, batez ere, etorkizuna aztertuko ditu. Tuteran, 1925etik izan dira txistulariak, eta, ordutik hona, tresna horren ospeak gorabeherak izan ditu. Jarduera honen bidez, txistua duindu nahi da, eta, horretarako goi-mailako txistulari profesionalek parte hartuko dute, kontserbatorioko irakasle ere badirenak.

Jarduera honetan, batetik, txistuari buruzko prestakuntza eskainiko da, Beñat Alcuazek emanen dituen hiru saiotan, eta, bestetik, Hiruzpalau taldeak kontzertu bat emanen du. Taldekideek eskarmentua dute bai txistuaren alderdi tradizionalan, baita proposamen berritzaileetan ere.

Prestakuntza-saioen egutegia:

IRAILAREN 2AN, 19:00ETATIK 20:30ERA, TUTERAKO CASTEL RUIZEN

IRAILAREN 3AN, 19:00ETATIK 20:30ERA, TUTERAKO CASTEL RUIZEN

IRAILAREN 4AN, 19:00ETATIK 20:30ERA, TUTERAKO CASTEL RUIZEN

GEHIENEZ 20 LAGUNEK EMAN DEZAKETE IZENA.

 **IZENA EMATEA DOAKOA DA, ETA HEMEN
EGIN BEHAR DA:**

sclaya@hotmail.com / 699 137 617 /
Harremanetarako pertsona: Iñigo Castellano

Hiruzpalau taldearen kontzertua:

IRAILAREN 7AN, 18:00ETAN, TUTERAKO CASTEL RUIZEN (EKITALDI-ARETOAN).

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE.

JUAN MARI BELTRÁN

Euskal Herriko musika eta soinu tresnak

Hitzaldi-kontzertu honen helburua da euskal musika folklorikoaren funtsezko alderdiak erakustea, abestien, melodien, dantzen eta musika-tresnen soinuaren bidez. Kontzertuan, Euskal Herriko zenbait eskualdetako ospakizun publiko eta familiarretan erabili diren tresnak eta musikak joko dituzte. Besteak beste, Pirinioetako artzainen antzinako doinuak txanbelaz eta xiolarruez, edota plaza-dantzak xirulaz eta ttun-ttunaz, zeinak oraindik jotzen baitira Zuberoan. Horrez gain, nekazarien jaietako eta erromerietako musikak erakutsiko dira, dultzainaz, danborraz eta soinuaz. Horrela, asmoa da erakustea nola erabiltzen diren musika-tresna tradizional horiek, dantzen eta musiken testuinguruak ezagutzeko eta jakiteko zer erabilera eta esanahi duten.

Musikariak:

- Juan Mari Beltran: xiolarrua, txalaparta, alboka, dultzaina, txistu-danbolina, xirula-ttunttuna, txanbela.
- Errege Belda: soinua, txalaparta, ahotsa.
- Ander Barrenetxea: panderoa, txalaparta, ahotsa, danborra, kanabera, arxaluak.
- Aitor Gabilondo: ahotsa eta gitarra.

📅 IRAILAREN 13an

🕒 19:00ean

📍 IRURTZUNGO KULTUR
ETXEAN

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE
GONBIDAPENA JASO ONDOREN

Oharra: jarduera oso-osorik euskaraz egingen da



LED SILHOUETTE

Lertxunaren Hegada

Dantza garaikideko ikuskizun honetan, Baxiliren istorioa kontatzen zaigu. Inguruotako txirla-biltzaile bakarra da Baxili, eta harat-honat ibiltzen da paduretan eta hondartzetan barna. Gelditzen den azkena da. Oso zaharra den arren, bere hanka luze eta ederrek lertxun baten itxura ematen diote oraindik ere. Begirada asko daude bere jardueran jarrita, bere espezieko azkena delako, beharbada. Hau da zorigaitza! Urtez urte aritu da horretan, baina, dirudienez, jadanik ez dago beretzako tokirik hondartzetan. Konplize bakarra dauka, Salvatore, Italiako lagun bat, izozkien orgatxoari lotuta bizi dena. Zahartzarora hurbildu arren, bietako batek ere ez du erretiroa hartu nahi.

© EL ESTUDIO: Adela Moreno - Ana Escario

📅 IRAILAREN 15ean

🕒 19:30ean

📍 AGOIZKO KULTUR ETXEAN

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE

"GRACIA NAVARRA" JOTA ESKOLA ETA AKADEMIA

Jota, gizateriaren ondarea

Elena Leachek bi hitzaldi-errezitaldi emanen ditu jotari buruz, Tafallan eta Murchanten.

Lehen hitzaldian, Perico Armendáriz "Margain" omenduko da. Tafallako "Hermanas Flamarique" jota-eskolak, Carolina Gonzálezen zuzendaritzapean, zuzeneko emanaldia egingen du, gaiarekin lotuta.

Murchanten, "La jota y el campo: labradores y labradoras" (Jota eta landa: nekazariak) izeneko hitzaldian, herriko jota-eskolak parte hartuko du, María Herreraren zuzendaritzapean, eta gaiarekin lotutako piezak interpretatuko dituzte.

📅 IRAILAREN 20an

🕒 19:30ean

📍 TAFALLAKO KULTUR ETXEAN

📅 IRAILAREN 22an

🕒 12:00etan

📍 MURCHANTEKO ZENTRO ZIBIKOAN

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE



LOUITA DELMONTEIL
AYRAL

Okzitaniako kantuari buruzko tailerra

Gaskoiniako kantuen errepertorio tradizionalean oinarrituta, tailer bat proposatzen da errepertorio horren harmonizazio bereizgarria lantzeko. Bereziki, ahoskera, fraseatzea, taldeko soinuaren kalitatea, dinamikak, kadentzia eta musikaltasuna zainduko dira. Lan guztia belarriz egingen da. Tailerra kantariei eta abesbatzetako abeslari eta zuzendariei zuzenduta dago. Komeni da abesbatzetan kantatzen eskarmentua izatea eta musika irakurtzen eta idazten oinarritzko ezagutzak izatea.

 **IRAILAREN 26an**

 **17:00etatik 21:00etara**

 **NAFARROAKO MUSEOKO
GELA DIDAKTIKOAN (IRUÑA)**

GEHIENEZ 30 LAGUNEK EMAN DEZAKETE IZENA.



IZENA EMATEA DOAKOA DA, ETA HEMEN EGIN BEHAR DA:

culturlzan@navarra.es / 680 358 815 / Harremanetarako pertsona: Arantxa Bidegain





📅 IRAILAREN 27an

🕒 17:00etatik 21:00etara

📍 NAFARROAKO MUSEOKO GELA
DIDAKTIKOAN (IRUÑA)

GEHIENEZ 15 LAGUNEK EMAN DEZAKETE IZENA.

i IZENA EMATEA DOAKOA DA,
ETA HEMEN EGIN BEHAR DA::

culturizan@navarra.es / 680 358 815 /
Harremanetarako pertsona: Arantxa Bidegain

MAIDER MARTINEAU

Pandero-tailerra

Prestakuntza honen helburua da panderoa eta haren teknika partikularra ezagutzea, kantuari eta beste tresna batzuei laguntzeko eta euskal dantza tradizionalei laguntzeko. Kantua izanen da gida; izan ere, pandero-joleak kantatu ere egin ohi du. Erritmo tradizionalak ikasi eta ulertuko dira, baita jotzeko moduak, sekuentzia erritmikoak eta haien aldaerak ere.

Tailerrean parte hartzeko, ez da beharrezkoa aurreko ezagutzarik izatea. Panderorik ez dutenei bat utziko zaie.



ATENA FUNDAZIOA

Sustraiak

Sorkuntza-proiektu honen abiapuntua Nafarroaren aniztasuna da, kulturari nahiz paisaiari dagokionez. Asmoa da diziplina anitzeko ikuskizun eszeniko batean uztartzea kultura, ondarea eta jendea.

Bidaia honek ibilbide koreografiko eta geografiko plastikoa eta emozionala marrazten du, paisaiek eta ohiturek eratua. Bideo-proiektzioak eta hizkera garaikidea erabiliko dira horretarako.

📅 IRAILAREN 29an

🕒 19:00etan

📍 ANTZOAINGO ANTZOKIAN

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE

📅 URRIAREN 18an

🕒 19:00etan

📍 SALESTARREN KOMENTUKO
ANSOLEAGA HITZALDI-ARETOAN
(IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN
EGOITZA, IRUÑA).

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE

OTXO BIKOTEA

Kokinak

Otxo bikotea Maider Martineau Zubietak eta Lolita Delmonteil Ayralek eratzen dute; musika-nortasun antzekoa eta desberdina dute aldi berean. Biak abiatzen dira beren jatorrizko musika-tradizioetatik (Euskal Herrikoa eta Okzitaniakoa), eta beste musika batzuetatik edaten dute, hala nola Galiziako, Quebeceko eta Brasilgo musikatik. Gainera, beren musika ere sortzen dute. Ahotsa da Maider eta Lolitaren instrumentu nagusia, baina soinu diatonikoak eta kromatikoak, trikitia, caramèra eta alboka ere jotzen dituzte, baita perkusioa ere, podorritmia, Peñapardako pandero karratua, panderoak eta ttun-ttuna erabiliz.



OBERENA DANTZA TALDEA

Oroitzapen Hutsak

Ikuskizun honetan antzerkia, musika eta dantza tradizionala fusionatzen dira. Aurizko dantzak ditu ardatz; haietako batzuk eszenatokian emateko egokitu dira, beste batzuk agiri historikoak oinarri hartuta birsortu dira, eta koreografia berriak ere badaude, Aurizberriko kantu tradizioaletan inspiratuak.

Ikuskizun honek memoria indibiduala eta kolektiboa esploratzen ditu, eta oroitzapenak gogora ekartzen ditu hotsen eta mugimenduen bidez. Hala, omenaldia egiten zaio Almandozko José Ángel Dorremotz ttunttuneroari, XIX. mendean Auritzera joaten baizen festetan jotzera.

Bidaia honek oroitzapenetan zehar garamatza, Alzheimerra duen emakume baten bizitza kontatzeko. Katalik, hala baitu izena, bidean topo eginen du Dorremotz ttunttuneroarekin, herriko festak alaitzen zituen txistulari harekin.

© Irati Alzpurua

📅 URRIAREN 20an

🕒 19:00etan

📍 BURLATAKO KULTUR ETXEAN

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE
OHARRA: JARDUERA OSO-OSORIK EUSKARAZ EGINEN DA

URRIAREN 25ean

19:30ean

MUSIKAREN HIRIKO
AUDITORIUMEAN (IRUÑA)

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE
GONBIDAPENA JASO ONDOREN

ROZALÉN

Eskola magistralak

Hitzaldi performatibo honetan, artistak bizitzan, lanean eta artearen munduan izandako esperientzia erakutsiko du, eta azalduko du nola erabiltzen duen tradizioa eta folklorea abiapuntutzat, errepertorioa sortzeko eta hura taularatzeko gaur egungo gizartearekin eta kulturarekin bat etorritz.

Rozalének 2013an hasi zuen bere ibilbidea, Con derecho a... diskoa argitaratu zuenean, eta harrezkero egile-abesti berriaren ahots nagusietako bat bilakatu da, baita publikoarentzat oso ezaguna eta maitatua den artista ere. 2024an estudioko seigarren albuma argitaratu du, El Abrazo izenekoa. Lan eklektiko horretan, emozio unibertsalak ospatzen ditu.



ELUTSEDER ELKARTEA

Kantuzaharrak

Zuzeneko ikuskizun honetan tokiko taldeek parte hartuko dute, eta Erroibarko antzinako herri-kantak berreskuratuko dira eta balioa emanen zaie.

Bizkarretako kaleetan zehar kantu zaharrek kantatu eta antzeztuko dira, ganbera-talde bat arituko da herriko San Pedro elizan, eta txistu eta euskal dantzako kontzertu bat izanen da, Aurizberriko ingurutxo berreskuratuko duena.

📅 URRIAREN 26an

🕒 18:00etan

📍 BIZKARRETAN



📅 URRIAREN 27an

🕒 19:00etan

📍 KARMENGO ENTZUNARETOAN
(ZANGOZA)

SARRERA DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE
GONBIDAPENA JASO ONDOREN

BARAÑAIN ABESBATZA

Hiru txito

Hitzaldi-kontzertu honek Nafarroako ahotsezko musika-ondarea esploratuko du, haren kultura-ondare immaterialaren funtsezko osagaia baita.

Batetik, Pello Leïñena Mendizabal musikologoak (Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboko zuzendaria) hitzaldi bat emanen du azaltzeko zer-nolako lana egiten den etnomusikologiaren arloan eta ikerketa-zentroetan, horri esker gorde baita ondare hau.

Bitartean, Barañain Abesbatzak zenbait melodia emanen ditu, a capella, landa-inguruneetako tradiziozko tinbrea, estiloa eta izaera erabili nahian. Gainera, abesbatzarako moldatutako konposizioak kantatuko ditu, besteak beste Aita Donostia eta Azkue etnomusikologoek bildutako melodia tradizioaletan oinarriturikoak. Azkenik, kantu tradizionalen inspiratutako lan garaikideak ere estreinatuko dituzte.

Programaren barnean, Nafarroa iparraldeko eta hegoaldeko obrak izanen dira, herrialdearen aniztasun geografikoa eta kulturala agerian uzteko.



ERAKUSKETA

Identitatea janzten

Aldi baterako erakusketa hau Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoak sortu du, eta ardatz du gaur egun Erronkaribarko ospakizun berezietan janzten duten jantzia, baina halaber erakusten du nola erabili zuten hura zenbait mugimendu sozial, kultural eta politikok XX. mendean, nortasun-ikur gisa.

Museoko piezak, marrazkiak, argazkiak eta agiriak daude ikusgai, eta haien bidez erakusten da nola erreproduzitu den Erronkariko herritarren jantzi bereizgarria, euskarri ezberdinetan, eskualdeko jantzi ikonikotzat edo Nafarroako jantzi tradizionaltzat hartuta.



Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua

AGENDA
2030

MUSEO
ETNOLOGICO
DE NAVARRA

NAFARROAKO
MUSEO
ETNOLOGIKOA

📅 EKAINAREN 18tik
ABENDUAREN 15era

📍 JULIAN GAIARRE MUSEO ETXEAN (ERRONKARI)

🌐 <https://www.juliangayarre.com/eu>

Agenda

ABUZTUAREN 24an

12:00etan / JULIO CARO BAROJA
NAFARROAKO MUSEO ETNOLOGIKOAN
(LIZARRA)

BERTSONDARE

ABUZTUAREN 31n

12:00etan / JULIAN GAIARRE MUSEO
ETXEAN (ERRONKARI)

BERTSONDARE

IRAILAREN 1ean

20:00etan / CINTRUÉNIGON (LOS PASEOS)

CINTRUÉNIGOKO PALOTEADOA

Cintruénigoko paloteadoa
berreskuratzea eta
plazaratzea

IRAILAREN 2, 3 ETA 4AN

19:00etatik 20:30era FORMAKUNTZA /
TUTERAKO CASTEL RUIZEN

LAYA KULTUR ELKARTEA

Txistua Nafarroan:
etorkizuna duen tresna

IRAILAREN 7AN

18:00etan HIRUZPALAU KONTZERTUA
/ TUTERAKO CASTEL RUIZEN (EKITALDI-
ARETOAN)

LAYA KULTUR ELKARTEA

Txistua Nafarroan:
etorkizuna duen tresna

IRAILAREN 13an

19:00ean / IRURTZUNGO KULTUR
ETXEAN

JUAN MARI BELTRÁN

Euskal Herriko musika eta
soinu tresnak

IRAILAREN 15ean

19:30ean / AGOIZKO KULTUR ETXEAN.

LED SILHOUETTE

Lertxunaren Hegada

IRAILAREN 20an

19:30ean / TAFALLAKO KULTUR ETXEAN

“GRACIA NAVARRA” JOTA

ESKOLA ETA AKADEMIA

Jota, gizateriaren ondarea

IRAILAREN 22an

12:00etan / MURCHANTEKO ZENTRO
ZIBIKOAN

“GRACIA NAVARRA” JOTA

ESKOLA ETA AKADEMIA

Jota, gizateriaren ondarea

IRAILAREN 26an

17:00etatik 21:00etara / NAFARROAKO
MUSEOKO GELA DIDAKTIKOAN (IRUÑA)

LOUITA DELMONTEIL AYRAL

Okzitaniako kantuari
buruzko tailerra

IRAILAREN 27an

17:00etatik 21:00etara /
NAFARROAKO MUSEOKO GELA
DIDAKTIKOAN (IRUÑA)

MAIDER MARTINEAU

Pandero-tailerra

IRAILAREN 29an

19:00etan / ANTSOINGO ANTZOKIAN

ATENA FUNDAZIOA

Sustraiak

URRIAREN 18an

19:00etan / SALESTARREN
KOMENTUKO ANSOLEAGA
HITZALDI-ARETOAN (IRUÑERRIKO
MANKOMUNITATEAREN EGOITZA,
IRUÑA)

OTXO BIKOTEA

Kokinak

URRIAREN 20an

19:00etan / BURLATAKO KULTUR
ETXEAN

OBERENA DANTZA TALDEA

Oroitzapen Hutsak

URRIAREN 25ean

19:30ean / MUSIKAREN HIRIKO
AUDITORIUMEAN (IRUÑA). SARRERA
DOAN, LEKU GUZTIAK BETE ARTE

ROZALÉN

Eskola magistrala

URRIAREN 26an

18:00etan Bizkarretan

ELUTSEDER ELKARTEA

Kantuzaharrek

URRIAREN 27an

19:00etan / KARMENGO
ENTZUNARETOAN (ZANGOZA)

BARAÑAIN ABESBATZA

Hiru txito

**EKAINAREN 18tik
ABENDUAREN 15era**

JULIAN GAIARRE MUSEO
ETXEAN (ERRONKARI)

ERAKUSKETA

Identitatea
janzten